


KOMUNITATEKO GIDA

Zer da Aiaraldea.eus atariko Komunitatea? Txoko ireki bat da, eskualdeko talde zein norbanako orori zuzendua dagoena. Euskarazko edukiak (bideoak, argazkiak, testuak...) modu librean plazaratzeko aukera ematen du Komunitateak, Aiaraldeko errealitatea denon eskutik denon eskura jartzeko.


Eta, nola erabili dezaket tresna hori? Hori da, hain zuzen ere, gida labur honen xedea: Komunitateko erabiltzaile izateko jarraitu beharreko pausoak azaltzea.

1. PAUSOA: KONTUA SORTZEA


Aiaraldea.eus atarian sartzerakoan botoi bat ikusiko duzu goian, eskumako aldean, "Sartu" dioena. Bertan klikatu.



"Izena eman" dioen laukian klikatu behar da gero:




Zure kontua aktibatuko duzu horrela. Ondoren, aukera izango duzu jarri duzun erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin sartzeko:



2. PAUSOA: PROFILA OSATU ETA KIDE BIHURTzea

Kontuan hartu erabiltzaile hutsa zarela momentuz. Iruzkina egiteko eskumena duzu soilik. Komunitatean eduki propioak argitaratzeko, Kide bihurtu behar zara. Horretarako zure profila osatu behar duzu lehenbizi. Goiko botoian klikatu eta "Profila" hautatu:


Hainbat gauzarekin osatu ahalko duzu profila: Izena, argazkia, zure sare sozialen erreferentzia...



"Mota" botoian klikatuta Kide izateko eskaera egiteko esteka agertuko zaizu:




Webgunearen kudeatzaileek zure profila aztertu eta Kide izaera emango dizute. Kidea bihurtu zarela ikusiko duzu goiko laukian edukia argitaratzeko aukera agertuko zaizulako:



3. PAUSOA: EDUKIA ARGITARATU

“Gehitu edukia” botoian klikatzerakoan hemen beheko pantaila agertuko zaizu:




Erabiltzeko nahiko intuitiboa da. Izenburua, sarrerako testua eta testua bete ahal dituzu. Horrez gain, aukera duzu bideo bat txertatzeko eta argazkiak gehitzeko.

Idazterako orduan kontuan izateko pare bat ohar:

-Ez idatzi maiuskulaz, oihuka ari zarenaren sentsazioa ematen baitu horrek interneten.

-Ahal dela, ez kopiatu testuak Word batetik gero webgunean itsasteko. Pasa lehenbizi testuak “bloctdenotas” batetik, bestela Wordean zituzten tipografiak mantenduko dituzte:



Badago baita agenda deialdiak argitaratzeko aukera, horretara bideratzen duen estekan klikatua:

Eta listo! Komunitatea atalean topatu ahalko duzu zure edukia:



Dudarik izatekotan bidali mezu bat erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera.